


# Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2000ko urtarrilaren 27a • 183. zka.



Seme-alabak  
lan asko eta laguntza gutxi

# MILURTE BERRIKO IKASTOLA




ALMEN IKASTOLA • ARRASATEKO IKASTOLA • LEHENHITZ HAUR IKASTOLA

**GURE IKASTOLETAKO BERRI IZATEKO ARETXABALETAKO  
BULEGOAN INFORMATU ZAITEZ**

Matrikula egunak:


Otsailak 7tik - 18ra

Ordutegia:




943 79 31 32

LARRIN PLAZA, 1  
(EUSKADIKO KUTXA ERAIKUNTZAN)




## Hirugarren seme alabarik izango zenuke? Gobernuak nahikoa dirulaguntza ematen du?



**Amaia Aizpurua**

Bai, zergatik ez? Ez dut uste arrazoi ekonomikoa bakarrik denik bi seme-alabatik ez pasatzeko arrazoiak.


Ez dakit, baina ez dut uste.



**Odilo Vázquez**

Ez, bi dauzkat eta nahikoa.

Gobernuak ez du batere laguntzarik ematen. Hemen-dik kanpora, beste herrialde batzuetan, askoz laguntza haundiagoak dituzte.



**Arritxu Oliden**

Ez, ez, bikin nahikoa.

Ez dakit seguru, baina ez dut uste.



**Xabier Ormaetxea**

Ez daukat seme-alabarik eta momentuz izateko asmorik ere ez.

Ez dakit.

### ESKUTITZA



#### UDALETXEAN TEKNI-KARI ERDALDUNA?

Aretxabaletako Udaletxean badaukagu "euskara teknikaria", badaukagu euskalduntze plana, baita euskalduntze teknikaria ere. Udaletxeko langileak euskalduntzera bidaltzen ditugu. Musika eskolako irakasleak ere euskalduntzera doaz.

Loramendi, Ortazar eta Komunikabide euskaldunetan diru polita inbertitzen du Udalak.

Garbi dago, joan zen astera arte Udalak euskararen aldeko jarrera garbia erakutsi du.

Zer gertatu da orain? Derrentente kontuhartzaile erdalduna daukagu Aretxabaletan (garbi gera bedi, pertsona honen aurka guk ez daukagula ezer). Nork hartu behar dizkio kontuak Udaletxe abertzale honi?

Aretxagazeta ez da azalpenak emateko lekurik txarrena.

Jon Ander Loidi  
Leire Okarantza  
Jon Iñaki Izarzelai  
Leire Gorostiza



#### GABONETAN ELKARTASUNA NAGUSI

AAKren partetik lehendabizi eskerrak eman nahi dizkiegu, gabonetan antolatu ditugun ekintzak burutzeko lan egin duten guztiei eta baita ekonomikoki lagundu diguten denda eta enpresei ere. Gure balorazioa positiboa izan da aurtengo hone-tan ere.

Garbi dago, data bereziak izaten direla honako hauek eta gehiago gogoratzen ditugula gure artean ez ditugun preso politiko eta errefuxiatuak. Bestalde, gogoan izan behar dugu zoritxarrez, senideek egunero sentitzen dutela beraien hutsunea etxeratu eta bertan ez aurkitzean: beraz ezinbestekoa izango da egunero lana lehebailehen hauek etxean aurki daitezen. Ez dezagun ahaztu: "Guztiok eman behar dugu zerbait gutxi batzuek eman ez dezaten".

Bukatzeo euskal preso politikoek 88 egun dela hasi zuten gose greba amaigabea ezin dugu ahaztu. Berrito ere, beraien osasuna arriskuan jarri, euskal gizarteari zera adierazi nahi die:

Lehenik eta behin, euskal preso guztiak kalean izatea, euskal nazio eraikuntzan euskal gizarte osoarekin batera parte hartu ahal izateko esku-

bide osoa dugulako. Bienbitartean, gure giza eskubideak errespetatu izan daitezten.

Gure senide eta lagunei jarritako zigorra arintzeko, sakabanaketaekin amaitu eta Euskal Herriko kartzelara eraman gaitzela. Gure militantzia politikoak eskatzen duen heineko tratua eman diezaiotela, preso politikoaren estatusa aplikatuz.

Kartzelak edota bestelako arazoiek eraginda gaisorik dauden burkideak kaleratuak izan daitezela.

Baldintzapeko askatasunaren epeak beteta dituzten burkideak kaleratuak izan daitezela.

Entrega eta estradizioen amaitzea eta Euskal Herrian libre bizitzeko eskubidea bermatzea.

Beraz, prozesu politiko demokratiko eta nazionala izan dadin, euskaldun guztien partehartze libre eta zuzena ziurtatzeko lan egin beharko dugu.

Euskal preso eta errefuxiatuak etxera! Indar okupatzaileak kanpora. Kepa askatu.

Aretxabaletako Amnistiaren  
Aldeko Komitea

## Aretxagazeta

183 zenbakia  
2000ko urtarrilaren 27a.

Durana 11, 151 postakutxatila  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es.  
Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta  
Argitaratzailea: Aretxabaletako komunika-bideak-Loramendi elkarteak.

**Erredakzio-kontseilua:**  
Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia.

**Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:**

Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.  
**Kolaboratzaileak:**  
Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia.

**Banatzalea:**  
Aitor Urrutia.  
**Inprimategia:**  
Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.  
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.  
Lege gordailua: SS378 / 94.  
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntza



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru  
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Urtarrilaren 29 eta 30erako antolatutako irteeraren berri ematera aterata ziren Gazte Asanbladakoak pasa den zapatuan.

## Nolako gaztetxea nahi den erabaki guran

Aspaldian, gaztetxean mugimendu handia dabil. Batek, asanbladak izan dira eta bestetik, festak, antzerkiak eta kontzertuak.

Maiatzean gaztetxea zerman pertsonari kontratua bukatu zitzaionetik asanblada ugari egin dira. Bilera hauetan, gaztetxea, gazte guztiena izan dadin zer egin pentsatu nahi izan da baina momentuz ez da inolako erabakirik hartu. Gai honen inguruan hitzegin eta erabakiren bat hartzeko asmoz, Gazte Asanbladak irteera antolatu du urtarrilaren 29 eta 30erako. Irteera hau

Garaiora egingo da eta 1.000 pezetaren truke, gosaria, bazkaria, afaria eta lo egitea eskeintzen dute Gazte Asanbladakoek. Haritz Bediaren esanetan "herriko gazte guztiei egiten zaie deialdia, bertan parte hartu eta nolako gaztetxea nahi duten iritzia eman dezaten. Denon parte hartzeaz, munduko gaztetxerik onena egitea da gure helburua".

**Antzerkiak eta kontzertuak**  
Nolako nahi den oraindik ez bada erabaki ere, gaztetxea bizirik dagoela erakutsi dute azken hilabeteotan

antolatutako ekintzek. Kontzertu ezberdinak, antzerkiak, hitzaldiak, pelikula emanaldiak... azkenengoa, ipuin kontalari baten emanaldia izan da, pasa den ostiralean hain zuzen. "Kondoiko bakoitzak du bere istorioa" ipuina entzutera hurbildu ziren 30 lagunek, barre egiteko aukera izan zuten oso giro onean.

Garbi dago Gazte Asanbladakoak gogor ari direla lanean gaztetxea aurrera ateratzeko, beraz ea herriko gazte guztien laguntza jasotzen duten munduko gaztetxe onena egiteko.

### ■ KONTUHARTZAILE TENIKARIAREN POSTUA KONKURTSO BIDEZ

Urtarrilaren 17an egin zen ez ohiko osoko bilkuran, kontuhartzaile teknikariaren postua konkurtso bidez kaleratzea onartu zen. Erabaki honek, beste administrazio batzuetan lanean dabiltzan langileei bakarrik ematen die lanpostura aurkezteko aukera, gainontzeak kalean geratuz. Badi-rudi eskakizun honekin langile berriaren esperientzia ziurtatu nahi izan dela. Lehen zegoen kontuhartzaile teknikariak postua utzi ostean, enpresa baten zerbitzua kontratatu da, langile berria hartu artean kontuak eramateko.

Hurrengo astelehenean egingo den ohiko osoko bilkuran, berriz, 2000. urteko aurrekontuak onartzea espero da.

■ **BOTUA EMAN AHAL IZATEKO ZERRENDAK IKUSGAI**  
Hurrengo martxoaren 12an egingo diren hauteskundeetan botua eman ahal izateko, zerrendak ikusgai daude udaletxean. Bertan, norberaren izen-abizenak eta helbidea konproba daitezke eta daturen bat zuzen egon ezean, udaletxean eman behar da honen berri, NANren kopiarekin batera. Zerrenda hauek, astelehena, urtarrilak 31, bitartean egongo dira ikusgai.

*Okindegia - Gozotegia*

*Arexabaleta*

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Arexabaleta  
Bertako okina

**M**obiliario  
**A**RENAZA

• ALTZARIAK  
• DISEINUA  
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Tel.: 943 77 11 76

# XI. Loramendi literatur lehiaketako sari banaketa egin zen aurreko ostegunean

Pasa den urtarrilaren 20an banatu ziren Loramendi Euskara Elkarteak antolatutako eskola arteko XI. Loramendi literatur lehiaketako sariak. Guztira 120 lan aurkeztu dira aurten, iaz baino 41 gutxiago, 108 ipuin eta

poesien sailean eta 12 grabaketen sailean. Epaike lanetan ibili direnen esanetan, oso maila altua egon da eta zaila izan da saridunak aukeratzea. Alkatea izan zen ume eta gaztetxo irabazleei sariak banatzen.

## SARITUAK:

### Lehen Hezkuntzan

#### 2. ZIKLOA

#### B ereduan,

- 1. Edurrezko panpina / Ivan Martin eta Oxel Ollobarren
- 2. Gabonak dira / Hildegard Colina
- 3. Olentzero gaixorik dago / Sandra Ladrador eta Eneko Iglesias

#### D ereduan,

- 1. Ainhoa eta animaliak / Garazi Orobengoa eta Janire Fernandez
- 2. Lurralde bat errege askorekin / Garazi Azkoitia
- 3. Pupo arraintxoa / Joanes Bazterrika

#### 3. ZIKLOA (B ereduan ez da lanik aurkeztu)

#### D ereduan,

- 1. Norena Muru? / Lide Mar
- 2. Poesia / Gillen Aginagalde
- 3. Lehoi haragijale bat belarjale bihurtu / Alexander Justel

### Bigarren Hezkuntzan

#### 1. ZIKLOA

- 1. Nire amama / Ahinitze Errasti
- 2. Mirian Duran eta Mari Karmen Algaba
- 3. ez da eman

#### 2. ZIKLOA

- 1. Uxue Eraña
- 2. Aita baten bizitza / Mikel Katania
- 3. Gerrako istoriak / Joseba Arkauz
- Akzesita / Timoteo Zuazuari.

Inoiz ez dugu

jakingo zenbat

lagundu digun

aurrerapen

honek.



Arizmendi

Milurte berriko

ikastola

aurreratu dugu.





## ARIZMENDI KOOPERATIBAK INFORMAZIO BULEGOAK ZABALIK DITU

Arizmendi kooperatibak prentsaurrekoa eman zuen urtarrilaren 18an. Honen helburua, orain urte bete inguru martxan jarri zen Arizmendiren nondik norakoak ezagutarazi eta zabaldu diren informazio bulegoen berri ematea izan zen.

Arrasate ikastola, Lehenhitz ikastola eta Almen ikastolak osatzen dute kooperatiba hau eta garatzen ari diren laugarren proiektua bat ere bada. Felix Ormaetxea eta Joxerra Zubizarretak adierazi zutenenez, seme-alabak ondo hezitzeko oso garrantzitsua da heziketa eredu eta horretarako, aukeraketa egin aurretik beharrezkoa da ondo informatuta egotea. Iazko informazio bulegoak izan zuen arrakasta ikusita, aurten hiru herrietan zabaldu dira. Aretxabaletan, Larrin plaza 1ean dago, arratsaldeko 5etatik 7ak bitartean. Telefonoz deitu nahi duenak 943 79 31 32 zenbakira dei egin dezake.

## "Zaborraren problematika aztertzen" kanpaina martxan

Deba Garaiko Mankomunitateak eta Udalako Ingurugiro Eskolak "Zaborraren problematika aztertzen" kanpaina jarri dute martxan. Maiatza bitartean iraungo duen kanpaina honetako ekintzak, hiru ataletan sailka daitezke: Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako ekintzak, DBHko lehen zikloko ikasleei zuzendutakoak eta publiko orori zuzendutakoak.

Eskoletara eramango diren aktibitateak tailerrak, solasalditxoak, diapositiba emanaldiak... zaborraren arazoaren eta birziklaiaren berri emateko erabiliko dira. Udalako Ingurugiro Eskolak egun bateko egonaldi berezia ere eskeiniko die taldeei, zaborraren gaia aztertzen jarraitzeko.

Aurten, iaz egin zen mural

lehiaketaz gainera, "hondakinak gutxitu eta birziklazioa" eta "bitxien" erakusketak ere egingo da. Erakusketak hauek, mankomunitateko herri guztietan izango dira ikusgai otsaila eta martxo bitartean, bai ikasleentzat, bai herritarrentzat.

### Helburuak

Kanpaina honek hainbat helburu ditu baina garrantzitsuenak zaborrek sortaraz ditzaketen ingurugiro arazoez jabetzea eta edukiontzien funtzioa hobeto ezagutzea izango lirake, hirugarren edukiontzia berri emanaz. Gure eskualdean zaborra tratatzeko erabili izan den modua jakinaraztea ere nahi da, bere alde onak eta txarrak jakin eta alternatibak aztertuz.



Zaborraren arazoaren berri eman nahi da kanpaina honekin

## UDAL TASEN HOBARIA

Aurten ere, Udal Tasen hobaria aurrera eramango dela jakin arazi da Gizarte Laguntzaileen Bulegotik. Aurkeztu behar diren agiriak: NANren kopia, etxeko guztien diru sarreren ziurtagiria edo langabeziaren txartela, ondasunen aitortpena eta kutxetako kartilak dira. Hobaria, lanen baimekin, estolderiak, etxeetako ur-hornikuntzak, zabor bilketak, kultur eta kirol zerbitzuek eta dokumentuen emateak jasoko dute. Hobaridun bakoitzari, laguntzen egiaztapen frogagarria emango zaio, tasa edo zerga bakoitza ordaindu behar duenean aurkezteko. Laguntza hauek bideratzeko udaletxeko Gizarte Laguntzaileen Bulegora jo behar da martxoaren 31a baino lehen.

## BASERRIAREN TRANSMISIOARI BURUZKO LEGE BERRIA HIZPIDE

Gipuzkoako baserriak transmititzeko orduan lege berria dago indarrean. Legearen onespenean, hasiera hasieratik ENBAK oso aktibo jokatu du bere aholkularia den Pili Zubiarrain abokatuaren bitartez; honenbestez, lege berriaren nondik norakoak eta zalantza guztiak argitu nahian bilera informatiboa izango da Bergaran otsailaren 3an.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekararren 3- Behea  
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

**J.J**

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA  
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34  
943 79 31 87

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
ARETXABALETA

**M**

**MEMESA**

*Industri  
hornidurak*

Tel.: 943 71 24 11  
ARETXABALETA

■ **50 MILIOI BANATU ZITUEN ONCEK HERRIAN** ONCEko 37.525 zenbakiak 50 milioi banatu zituen herrian pasa den urtarrilaren 19an. Ion harategian saldu ziren hamar txarteletik zazpi herrian geratu ziren eta beste hirurak, kanpora eramane zituzten, bata Bergarara eta beste biak Segurara. Txartel bakoitzak 5 milioiko saria zeukan, beraz, pozik egongo dira hainbat herritar izandako zortearekin. Ion Diaz harakina, berriz, ezer gabe geratu zen. Sari hau tokatu zaion lagun batek, lehen ere jasoak ditu ONCE eta Loteriako beste bi sari ere.

■ **EHIZA TXAKURRA AURKITU DA** Pasa den urtarrilaren 19an galduta zebilen ehiza txakurra aurkitu zen Loramendi aldean. Emea da, beltzarana eta katea dauka lepoan. Norbaitek ezer baleki dei egin dezala 696 877 119 telefono zenbakira eta Haritzekin hitzegin.



## Santa Ageda mutilak prestaketa lanetan

Santa Ageda eguna gainean dugu eta aurtengo Santa Ageda mutilak hasiak dira jadanik, dantza saioekin. Urtero bezala Igone Zaloña, Eli Blanco eta Ainhoa Calleja dituzte irakasle eta gabon ostean hasita, astean bi aldiz elkartzen dira ikasteko.



Aurten, gainera, inoiz baino igande gehiago izango dituzte dantzan eta parrandan egiteko, aratusteak oso berandu tokatzen baitira. Hau ikusita eskaera ere egin dute, "ea jendea ondo portatzen den eta diru asko ematen digun".

## BIDEZKO MERKATARITZAREN INGURUKO KANPAINA ARRAKASTATSUA

Bidezko merkataritzaren inguruko kanpaina, arrakasta haundiz burutu zen pasa den astean. Urtarrilaren 18an, Gipuzkoako Karitaseko Iban Narbaiza kideak eman zuen hitzaldian, jende ugari bildu zen. Bere esanetan, bidezko merkataritzaren helburua, batetik, eskulan merkearen enpresa politika salatzea eta bestetik, demokrazia zuzenaren enpresa egiturak sortuz, duintasuneko lan-egoerak eta soldatak lortzea da.

Aste bukaeran burutu zen produktu salmentak ere, arrakasta handia izan zuen. Jende ugari pasatu zen bertatik zapatu ilunkara eta domeka goizean eta produktuak barra-barra saldu ziren, batez ere jatekoak: txokolatea, kafea, eztiak, gailetak... Parrokiako Misio Taldekoak eta Hiru-txekoak, pozik azaldu ziren lortutako emaitzarekin.



### Tanbor hots ugari San Sebastian egunean

Joan zen ostegunean, Donostian eta Azpeitian bakarrik ez zuten ospatu San Sebastian eguna. Gure herrian ere ume ugari izan ziren buruan sukaldari kapela jarri eta tanborrak eskuan hartuta Sarriegiren martxak jotuztenak. Santa Rita eskolako ikasleek tanborjole apartak zirela erakutsi zien guraso eta amaitaittei.

## GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18  
ARETXABALETA

### BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tel.: 943 77 13 57

## Leibar

arrandegia

Mitarte Kalea, 1  
Tfnoa: 943 77 13 79  
ARETXABALETA





### HEZKIDETZA ETA JOLASA LANTZEN ARI DIRA KURTZEBARRI ESKOLAN

Gure gizartean neskek eta mutilek aukeratzen dituzten jolasek zerikusi haundia izaten dute genero bakoitzari ezartzen zaizkien gizarte rolekin, eta ez hori bakarrik, edozein eskoletako patioan neskek alboetako gunek betetzen dituzte eta mutilek erdikoak, mutilen jokoak mugimendu haundiagokoak izanik eta neskenak berriz, pasiboagoak. Espazioa modu horretan betetzea gizartearen islada hutsa da.

Egoera hau behatuta Kurtzebarri Eskolan patioako antolamendua aldatzea erabaki zuten. Antolamendu honen barruan helburu nagusietako bat neskek ere erdiko gunean jolastea da, alegia, erdiko gunea amankomuna izatea neska eta mutilentzat.

Esperientzia honen barruan Olinpiada baten planteamendua egin da, Olinpiada honetan zenbait aldagai kontuan hartuak izan dira: indarra, trebezia, lehia, elkar laguntza... azken finean neskek eta mutilak taldeetan nahasturik arituko dira betiko esmekin hautsi ahal izateko.

Laburbilduz, helburua, neska eta mutilak elkarrekin ongi diberti daitezkeela sentitzea da eta poliki barneratuz joatea erdiko espazioa (espazio publikoa) eta alboetako espazioa (espazio pribatua) biena dela.

## Langai, lanpostua aurkitzeko bidea

Langai zer den eta nola funtzionatzen duen ez dakien jende ugari dago oraindik. Beraz, hau argitu nahi izan dute Euskal Lan zerbitzuko kideek.

Langai, Eusko Jaurlaritzako lan zerbitzua da, Euskal Autonomi Erkidegoko lan poltsa haundiena hain zuzen, 150.000 lagun biltzen baititu. Langaik doako bi zerbitzu eskeintzen ditu bate-tik, langabezia daudenei edo postu hobe lortu nahi dutenei, lanpostua aurkitzeko aukera ematen die. Bestetik, giza baliabide egokiz hornitzen ditu enpresak. Martxan jarri zenetik hiru urte pasatu dira eta jadanik, 8.000 enpresen eskaerei erantzuna eman eta 40.000

lanpostu inguru gestionatu ditu.

### Nola funtzionatzen du

Lan bila dabilen pertsonak hainbat bide erabiliz eska dezake hitzordua: Langaiko zentru laguntzaileetara joaz, Langaira deituz 901 222 901, Kutxako edo La Caixako kutxazainen bidez, edo Euskadiko Kutxako 901 200 000 telefono zenbakira deituz. Ondoren zentru laguntzailean elkarrizketa egingo diote eta kurrikuluma jasota geratzen da, Langaiko lan poltsan sartuz.

Arrasaten Langaiko hiru zentru laguntzaile daude, Arrasateko Udala, Deba Garaiko Mankomunitatea eta Bastida Akademia.



### Arlutzeko kantuan obrak egitea aurrakusi du Udalak


1999ko aurrekontuetan aurrakusi bezala Arlutzeko kantuan obrak egingo dira. Horretarako, Ilargiko etxe berrien urbanizazioa guztiz bukatu arte itxarongo da, gero kantuan lanak arazo gabe egin ahal izateko.

Egingo diren lanen artean, lurra botatzea dago. Hau resinazkoa izango da eta tratamendu berezia izango du labankorra izan ez dadin. Azkenik, margoketa lanak kon-tuan harturik, udaberri alde-ra bukatzea espero da guztia.

## INFORMAZIO ETA DOKUMENTAZIO ZENTRUA ZABALDU DA ALMENEN

Urtarrilaren 10ean inauguratu zen Almenen Informazio eta Dokumentazio Zentru berria. Zentru honek 90 lagunendako lekua du eta 10.000 liburutik gora daude bertan, baita 1.000 bideo, ehundaka CD, 53 aldizkari eta Internetera sarrera duten 11 ordenagailu ere. Bakarkako lana eta taldeko lana egiteko pentsatua dago eta lau espaziotan banatu da: informazio gunea, jakintza gunea, aisialdi gunea eta ikasteko gela.

Informazio eta Dokumentazio Zentru berri honekin beste ikasteko era bat eskeintzen zaio ikasleari, ikasle bakoitzak bere ikaste-prozesua eraikiz. Lehen Hezkuntzako mailetan jadanik asko erabiltzen dute zentru hau, ikaslearen programan guztiz txertatua baitago. DBHn berriz, motelago doa metodologia honen finkatzea baina poliki-poliki zehazten ari da.



## ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- |                              |              |
|------------------------------|--------------|
| • JUANTXO URDAITEGIA         | 943 79 75 42 |
| • MARI KARMEN OINETAKO DENDA | 943 79 59 85 |
| • IRUDI ILEAPAINDEGIA        | 943 79 80 90 |
| • MIREIA ARRAINDEGIA         | 943 79 31 59 |
| • LEINTZ-ROSI                | 943 79 78 63 |
| • ERREKABARREN FRUITATEGIA   | 943 79 96 43 |



# Pausoka haur eskolak...

2000-2001 ikasturterako izena emateko epea zabalitzen du



*Euskaraz hazi eta hezi*

Otsailaren 1etik 11ra,  
6etatik 7etara bitartean  
Pausokan

- Otiak 3 urtera bitarteko haurrak talde egokituetan
- Ordu-tegi zabalak:
  - Goizeko 7,30etatik arratsaldeko 6ak arte
  - Ordu-tegia moldatzeko aukera
- Jangela zerbitzuak:
  - Gosaria: bertan gertatutako janaria
  - Bazkaria: haur bakoitzari egokitutako dieta
  - Askaria
- Logela
- Ikasturtea iraila eta uztaila barne

Otalora, 27 behea ARETXABALETA  
943 77 03 77

## SANTA RITA HAUR-ESKOLAK

2000/2001 ikasturterako matrikula epea zabalitzen du




- ◆ Haur Hezkuntza: 2 urtetik 6 urterarte
- ◆ Espazio zabalak, seguruak eta egokiak
- ◆ Talde hezitzailea: x profesionalitatea eta esperientzia
- ◆ Gurasoen partizipazioa eta kolaborazioa
- ◆ Jantokia: bertan prestatutako janaria

- ◆ Otsailaren 7tik 18ra
- ◆ Informazio ordutegia:
  - . Goizez 9etatik 12etara
  - . Arratsaldez 3etatik 6etara





Plastikozko  
ontziak



Latak



brickak



# ...zure esku dago

“Buertaka - Buertaka Birziklatuz”

**D**atozen egunetan honelako 127 edukiontzi jarriko ditugu Deba Garaian zehar. Zure laguntzarekin ingurugiroa zaintzeko bide horretan urrats handia emango dugu.

**E**ta horrela, lehengai eta energia gutxiago beharko dugu, kutsadura eta zaborrak ere gutxitu egingo dira, eta jakina, zabortegeak ere denbora luzegorako izango ditugu.

## Gutxitu hondakinak, berriz erabili eta birzikla itzazu

## Guztion mesedetan izango da



*Leonen jaiotza bazen ere 31 urte daramatza Aretxabaletan eta seguruasko gutako askok baino hobeto ezagutuko ditugu hauek txokoak. Udan, Kurtzebarri, Degurixa edo Ugasteira eta orain, neguan, Gellao edo Apetzara, baina beti mendira.*



## Soledad Fernández

### 85 urte eta pasiuan nekatu barik

■ **Noiz etorri zinen Aretxabaletara?**

■ Orain 31 urte. Izatez Leongoa naiz baina Santurtzin bizi nintzen, eta alabak bigarren umea izan zenean laguntzera etorri Aretxabaletara eta geroztik hemen bizi naiz.

■ **Zenbat seme-alaba eta iloba?**

■ Bi seme eta alaba. Seme bat 53 urterekin hil zitzaidan eta bestea Santa Agedan dago, Alzheimerrak jota. Ilobak, berriz, asko eta hiru biloba ere badituzte.

■ **Egunero joaten al zara pasiatzera?**

■ Bai, astegunetan arratsaldero joaten naiz. Orain, neguan, Gellaotik Apetzara joan ohi naiz, ondoren Eskoriatatik etxera seirak ingururako. Ostegunetan, berriz, Santa Agedara joaten naiz

semea bisitatzen. Batzuetan kotxean eramaten naute eta gero oinez bueltatzen naiz. Eguraldi ona eginez gero Muruko bidetik eta bestela, errepidetik oinez San Andreseraino eta hemenendik, batzuetan autobusez eta hurrengoan oinez etortzen naiz. Igandetan, berriz, Ugastei edo Alabita aldera joatea gustatzen zait.

■ **Errepidean ez al da kotxe asko ibiltzen?**

■ Bai, batez ere eguerdi inguruan, jendea lantegietatik ateratzen denean. Ni, ordea, errepide bazterretik joaten naiz.

■ **Ez al duzu inoiz sustorik izan?**

■ Ez. Beno, orain urte batzuk kamioi batek harrapatu ninduen baina hementxe etxe parean izan zen, dendara nindoala errepidea zehar-

katzean.

■ **Beti bakarrik ibiltzen zara?**

■ Bai, nahiago dut bakarrik, neure kasa ibiltzea. Hemenetik ez dudala joan nahi, inori azalpenik eman gabe buelta egin eta kitto. Lehen, batzuetan, Benitok, iloba zaharrenak lagundu ohi zidan Alabitarra eta oso ondo konpontzen ginen.

■ **Eguraldi txarra egiten duenean zer?**

■ Lehen gantxiloa eta jertseak egiten nituen, orain, ordea, ezer ez. Eguraldi txarra egiten duenean ere, botak jantzi, aterkia hartu eta pasiatzera joaten naiz mendira.

■ **Honez gero baserritarrek ezagutuko zaituzte, ez?**

■ Ez, asko ez, baserri alboetatik pasatzen naiz baina geratu barik, entzun ere ez dut

egiten ondo eta. Ugasteira, Maritxu eta Imanol Bereci-bar ikustera joatea gustatzen zait. Lehen Ugasteiko bi artzaini gaztaia eroatera joaten nintzen baina behin gaztai txarra eman zidaten eta geroztik ez naiz bueltatu. Arrautzetan Mendiolarra ere joaten nintzen eta esnea eroatera Arientzara, Abasolotarren baserrira. Aste osorako esnea ekarten nuen, 6 litro inguru.

■ **Zein da lekuri gustokoa?**

■ Mendiolatik gora San Juan txikiko iturriraino joatea dut gogoko, orain oso ur gutxi dauka. Handik, Kurtzebarri-ra doan bidea hartu eta Maritxu eta Imanol ikustera Ugasteira. Ugastein jende asko badago, han aurrerago dagoen ermittara joaten naiz eta handik Urkulura jeitsi.

# Aretxabaleta denon proiektua

Zalantzarik gabe, Aretxabaletak izugarrizko aldaketak izan ditu azken 15-20 urteotan: industri potentzia handia garatu du, hirigintza aldetik ere nahiko hazkunde antolatua izan du eta, oinarrizko zerbitzuei dagokienez, beharrezkoa duen herria dela esan dezakegu.

Baina, aztertzen jarraituz gero, herria inertzia txiki batean erori dela ere antzematen da eta faltan botatzen ditugu hedadura handiko ekimenak, alegia, herriari beste bultzada bat emango dioten eta batez ere herritarren bizi-kalitatea hobetuko duten aldaketak, Aretxabaleta herri ezberdina bihurtuko dutenak.

Gabeziak, besteak beste, kultura eta kirol-esparruetan sumatzen dira nagusiki; azken finean herriek, kasu honetan Aretxabaletak, nolabaiteko bizia izatea eragiten duten ekipamenduak falta dira, hau da, lan egiteko eta bizitzeko herri atsegina baino gehiago izateko bitartekoak. Eta, jakina, edozein eratako ekimen proposatzeko orduan, eskualdearen testuinguru ere hartu beharko litzateke kontuan.

Puntu honetara iritsita, gor-mutuen arteko elkarrizketa antzeko batean erortzeko arriskua dago; izan ere, herritar eta talde bakoitza proiektu eta ekimen isolatuak eta interes jakin batzuen araberakoak proposatzen has daiteke eta horrek burutzerik izango ez lukeen ekimen-zerrenda luze bat baino ez luke sortuko.

Beraz, egoera kontuan hartuta, argi dagoena da denon artean egin behar dugula lan herria puntu jakin batera eramateko, bestela, herria lehen aipatu dudan inertziatzaz haziko da eta. Horregatik da garrantzitsua "denok", politika, gizarte, kultura, ekonomia eta kirol-arloko eragile guztiek bat eginda, hausnarketa estrategiko bati heldzea, etorkizunean nolako Aretxabaleta izan nahi dugun zehazteko.

Horretarako, noski, metodologia zehatza behar da, eta hori udalaren Plan estrategikoa dugu, Udalak berak zuzendu eta azterketa-prozesu praktikoa, aktibo, adostu eta parte-hartzailera proposatzen duena eta, elkarte, kultur erakunde, enpresari, merkataria, ikastola eta abarrek lagunduta, Aretxabaleta denok nahi dugun herri-proiektua bihur dezakeena.

Badugu zereginik!



Jose Mari ARMENTIA

**PAGALDAI**

**Opari denda  
Lurrindegia**

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

**BENGOA  
URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta  
mortzilak*


Durana, 9  
Tel.: 943 79 19 79

**Iber**

★ Loteria ★  
✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2  
Tel.: 943 79 04 39

**HAURRAK**



**Umeendako  
moda**

Lezama merkatal  
zentrua, 15  
**ARETXABALETA**



Nagusitzen doazen heinean gero eta gastu gehiago sortzen dira markako erropak, musika eskola, ingelesko klaseak...

# Umeak, poztasunak eta buruko-minak

*Gure aiton-amonen garaian umeak barra-barra izaten ohituta zeuden. Gure gurasoek, seme-alaba gutxiago izan zituzten baina hiru eta lau umedun familiak ez ziren beste mundukoak. Gaur egun, Aretxabaletan, hiru ume ditzuten familiak gutxi dira, lauokak bakar-rren batzuk eta bostekorik ez dago. Edonori zergatik ote den galdetuz gero, arrazoi ekonomikoa agertzen da erantzunean.*

*Orain urte batzuk, gobernuak, hiru seme-alabadun familiei, familia ugari izena eman zien. Izena bai, baina laguntza haundirik ez. 2000. urtearekin batera, laguntza hauek haunditzeko asmoa zabaldu da: etxebizitza haundiak erosteko laguntza, kotxe haundiak erostean BEZaren murrizketa, karga fiskal egokituak... Proposamenak bai, familiak, ordea, salantzaz beteta daude, egia ote?*

Euskal Herriak munduko jaiotza tasa bajua du. Europan, bertan ere, ez dago beste herririk Euskal Herriak bezain bajua duenik. Arrazoiak aztertzen hasita asko ager daitezke baina nagusia seguru asko ekonomikoa izango da.

Diru kontuetan sartuta, zaila da zehatz ume bat zenbat kosta den aurrera ateratzea esatea. Txikiak direnean, gastu batzuk izaten dira kotxetxoak, aukia, pinalak... Ondoren, hazten doazen heinean aldatu egiten dira gastu hauek erropa, musika eskola, ingeleseko klaseak... Eta azkenik, nagusitzean ikasketak datoz, unibertsitatea, ingelesa ikastera kanpora... Seme edo alaba bakarra aurrera ateratzea zaila bada, zer esanik ez hiru edo lau.

#### Gobernuaren laguntzak

Gaur egun gobernuak ematen dituen diru laguntzak benetan eskasak dira. Umeak txikiak diren artean, trenean eta hegazkinean bidaiatzeko laguntzatxoak besterik ez daude. Nagusitzen direnako, horiez gain, unibertsitate publikorako deskontuak aipa daitezke baina besterik ez.

2000. urte honetan, badirudi gobernuak haunditu egin nahi dituela laguntza hauek. Karga fiskal egokiagoak eskeini, etxebizitza haundiak eskuratzeko laguntzak eman, kotxe haundiak erosteko BEZaren murrizketa proposatu, oporretan kanpora joan ahal izateko diru laguntzak eskeini, lan mundua eta famili bizitza

lotzeko abantailak eman... Dena dela, aipatzekoa da Foru Aldundiko Famili Ugarien sailean oraindik ezer ez jakitea.

#### Amak lana egin behar

Famili ugaria duen amari benetako salantza sortzen zaio, etxean geratu umeak zaintzen edo lanera joan? Lanera joatea erabakiz gero ume horiekin zer egin pentsatu beharra dago. Ume bakarra duenak ere salantza bera izan dezake baina hiru edo lau ume daudenean, ondo pentsatzekoa da. Batzuk haurtzaindegira bidaltzen dituzte, beste batzuk pertsona bat hartzen dute umeak zaindu eta etxea txukuntzeko eta zortea duten azken batzuk, aittaita-amamekin uzten dituzte.

Bi seme-alabatik gora dituzten familiak bat datoz soldata bakarrarekin familia osoa aurrera ateratzea oso zaila dela esatean. "Gabon hauetan lanean aritu naiz eta hiru haur txiki etxean izanda oso zaila dela frogatu dut"



**“Orain sei urte ere gobernuak diru laguntzak eman behar zituela esan zen, oraindik zain gaude”**



## “Lanik egingo ez banu, gaur egun daukagun bizitza kalitatea ez genuke izango”

dio Mercedes Gonzálezek.

### Jose Angel eta Mercedes

Jose Angel Cabero eta Mercedes Gonzálezek hiru seme-alaba dituzte Ohiane 7 urtekoa, Ekaitz, 4koa eta Markel 2koa. Hiru izatean gabe bazuten ere, halaxe suertatu zen eta pozik hartu zuten. Mercedesek ez du lanik egiten, soldata bakarriarekin larri ibili arren haurrak oraindik txikiak direla dio eta bere ustetan ez duela konpentsatzen beste norbaitekin uztea.

### Javier eta Lorea

Javier Mar eta Lorea Barrutiak ere hiru seme-

alaba dituzte. Lidek 10 urte ditu, Gillenek 8 eta Lorek 6. Familia haundiak gustoko dituzte eta horrelaxe hiru seme-alaba izatea erabaki zuten. Lorearen esanetan “nire familia gertu bizitzeak eragin handia izan zuen erabaki horretan, beti egon baitira laguntzeko prest”.

Gobernuak emandako diru laguntzei buruz hitz egitean, familia ugariatzat bereziki ez dagoela ezer diote, ez behintzat aipatzeko modukorik. “Orain sei urte, Lore jaio zenean ere, gobernuak diru laguntzak eman behar zituela esan zen, oraindik zain gaude”.

### Carlos eta Inma

Carlos Martin eta Inma Miguel, Ane eta Nahia zazpi urteko birkien eta bost urte egin behar dituen Endikaren gurasoak dira. Birkiak izateagatik diru laguntzak ematen dituztela han eta hemen zabaldu arren Inmak ezetz dio. “Behar bada orain aldatuko da gauza baina guk izan genituenean ez zegoen ezer eta inork ez zigun laguntzarik eman”. Hiru umeak haurtzaindegitik pasatakoak dira Inmak lanean jarraitzea erabaki baitzuen. “Soldata bakarriekin hiru ume aurrera ezin daitezkeela atera ez noa esatera, baina kostata seguru. Lanik egingo ez banu, gaur egun daukagun bizitza kalitatea ez nuke izango”.

### Bizitza kalitatea

Gaur egun bikoteek seme-alabak izateko eskatzen dutena laguntza da. Ez bakarrik diru laguntza,

beste era bateko laguntza ere bai, amatasun baja luzeagoa, amak lan ordu gutxiago lan egiteko aukera... Bikoteak bi baino ume gehiago izatean bizitza kalitatea galduko duten beldur izan ohi dira.

Europako beste herrialde batzuetan, jadanik konturatu dira umeak izateko bizitza kalitatea ziurtatu behar dela eta horixe egin dute, era guztietako laguntzak eman. Orain hogeitau urte, Espainian umeak barra-barra jaiotzen zirenean, horrelakorik pentsatzerik ez bazegoen ere, gaur egun, Suedia eta Norbегia dira jaiotze tasa haundiena duten Europako herrialdeak. Seguru asko bertako gobernuak zerikusit haundia izango dute aldaketa honetan.

Familiaren balorea hainbeste aipatzen eta goraiatzen den garai honetan bada zerbait egiten hasteko ordua, martxa honetan zaharrak besterik ez baitira egongo kaleetan.

## Populazioaren zahartzea



1998. urtean Aretxabaletan 37 haur jaio ziren. 1999an, berriz, 46. Urte batetik bestera bederatzi haur gehiago jaio dira. Arrasateko Eskualde Ospitalean ere igoera nabarmena izan da, 30 ume inguru gehiago jaio baitira. Gero eta bikote gehiago dira, gainera, hirugarren umea izan nahi dutenak. Bada zerbait. Igoera aipagarriak direla esan daiteke, gainera goranzko joera adierazten dute.

Datu hauen aurrean, hirugarren adinekoei dagozkienak daude. Gipuzkoan, iaz, 140.000 lagun jubilatuta ziren. 140.000 jubilatuta berri. Benetan larritzeko datua, populazioaren zahartzarora adierazten baitu. Martxa honetan, pentsio sistema mantendu ahal izateko, kanpoko langileen beharra egongo da eta ez bat eta birena, milioikarena baizik. Gaur bota egiten ditugu afrikatik datozen inmigrante horiek, bihar behar bada, ordaindu egin beharko diegu etortzeko.



### Piraguismoa

Murruxiko Mendizale elkar-teak piraguismoan federatzeke epea zabaldu du. Kirol honetan urtero-urtero federatu beharra dago, eta aurtengo kuota 2.500 pta.koa da. Beraz, aurtengo urterako federatu nahi duenak, Murruxikoko lokaletik pasatu beharko du martizenetan arratsaldeko 7,30etatik 8etara.

Horrez guztiaz gain, aurtengo urtera begira, kirol honi loturiko irteerak egiteaz gain, sailerako hainbat material erosteko asmoa du elkar-teak.



### Pilota

Herriko pilotariek elkar-teko pilota txapelketa bukatu berri dute, eta orain, Deba Arrokoari ekingo diote.

Datorren astean hasiko den txapelketa honetan, kadete, jubenil eta senior kategoriak daude, eta pilotariek txandakatu zuten jokatu dute. Txapelketa, Aretxabaletak Eskoriatza izango du lehenengo aurkaria.

Elkar-teko txapelketari dagokionez, Errasti anaiak laugarren postuan gelditu ziren final aurrekoak galdutakoak.



### Mendia

lñurrategi anaiak Torre del Paine egiteko zuten helburua lortu barik itzuli dira etxera. Eguraldia izan dute oztopo nagusia espedizio honetan. Elurte gogorak alde batetik eta haize bortitza bestetik, ez die tontorrera iristeko aukerarik eman. Gogoratu, bi anaiak orain bi hilabete inguru abiatu zirela Chileko Patagoniara Torre del Paine igotzeko asmoz.

Hurrengo helburuak Anapurna eta Manaslu 8.000ko mendiak dira.



### Futbola

Preferenteak Orioko hartuko du etxean datorren domekan. Iñaki Cegiagaren mutilak irabazteko grinaz aterako dira zelaira, eta etxean hiru puntuak eskuratzeko ahalegin guztiak egingo dituzte.

Oiartzunen aurka jokaturako azken partiduan galdu egin zuen Aretxabaletak 2-0 aurkarietako. Horren ondoren, klasifikazioaren erdi inguruan dago talde atxabaltarra. Gora egiteko Orioko gaitasuna beharko du.

*Bere bikia Andonirekin batera, oso gaztetxo zela, hasi zen Fran Miguel xakean jolasten. Kirolarekiko zaletasunak Euskal Herriko xake jokalaritaren artean kokatu du 25 urteko atxabaltarra. Horrez gain, aurten Euskal Ligara igo duen Arlutz xake taldeko partaide ere bada.*

**■ Aurten Euskal Ligara igo ondoren, nola baloratuko zenuke Arlutz xake taldeak egindako lana?**

■ Momentuz oso ondo goaz. Gure helburua maila mantentzea da eta hortan saiatu behar dugu gelditzen diren lau ihardunaldietan. Guztira hamabi talde gara eta orain laugarren postuan klasifikatuta gaude. Dena dela, aurten bost talde jeitsiko dira beheko mailara eta horregatik mantentzea ere nahiko burukomin izango da.

**■ Normala da gurea moduko herri bat xakeko Euskal Ligan egotea?**

■ Kasu bitxia dela esango nuke nik. Sei mila biztanle dituen herri bat Euskal Ligan egotea ez da sarri ematen den gertakaria. Donostiatik samurragoa da horrelako

talde bat ateratzea. Gure taldeko maila oso altua dela esango nuke.

**■ Gipuzkoako hirugarrena izan zara oraintsu, baina aurretik lehena ere izandakoa zaitugu.**

■ Bai, hiru aldiz hartu dut parte txapelketa honetan. Lehenengoan irabazi egin nuen, bigarrenean bigarren gelditu nintzen eta aurten, berriz, hirugarrena. Aurten, egia esan, ez dut hain ondo jokatu. Dena dela, xakea horrelakoa da, gorabehera ugariak.

**■ Donostian ikasten diharduzu, hiriburuak aukera gehiago eskaintzen ditu xakean entrenatzeko?**

■ Donostian astean hiru edo lau aldiz xake elkar-terera joaten naiz jolastera. Orain ez dut lehen bezain gogor entrenatzen. Hasiera batean liburuetatik ikasten nuen eta baita ordenagailuetatik ere. Orain denbora gutxi eskaintzen diot modu horretan ikasteari. Nire maila nahiko

## Fran Miguel

### Xake jokalaria

altua da orain baina hori hobetu nahi badut, seriotasun gehiago eskaini behar diot xakeari.

**■ Profesionaltasunera iristeko aukerarik ikusten duzu?**

■ Oso gatxa da xaketik bizimodua ateratzea. Nire iritziz, hobe da bestelako lan bat izan eta orain bezala jolasten jarraitzea. Euskal Herrian bi edo hiru xake jokalaritako profesional bakarrik daude, hortik atera kontuak.

**■ Zein ezaugarri behar ditu xake jokalaritako on batek?**

■ Joko mota hau gustatzen gero, jolastea da garrantzitsua. Horrez gain, pixkat ikasiz gero, ona izatera irits zaitezke.

**■ Zer eman dizu xakeak urte luze hauetan?**

■ Garaipenei normalean ematen diegun garrantzia ez ematen erakutsi dit. Kirol honetan nahiz eta egun batean irabazi, hurrengoan galdu egiten da. Beraz, garaipenak eta porrotak erlatiboak dira mahai joko honetan.

**■ Nolakoa da zure jokoa?**

■ Nik oso lasai jokatzen dut, gehiegi arriskatu barik. Aurkakoa ere kontuan hartu behar da. Xakean aurkakoa zer egingo duen pentsatu behar duzu eta bere asmoei aurreratu. Beraz, bestearen pentsamendua kontuan hartu behar da.

Horrez gain, energia aldetik ondo egon beharra dago irabazi nahi izanez gero, partidak luzeak izaten baitira.





## Deba Garaiko Kirol Medikuntza Zerbitzua



Kiroletxeak mediku azterketak egiteko aukera eskainiko du

## Kirol medikuntza zerbitzua martxan da kiroletxean

Kiroletxeak, Deba Garaiko Mankomunitatearen laguntzarekin, kirol medikuntza zerbitzua martxan jarri berri du. Zerbitzu honen helburua kirola modu egoki eta kontrolatu batean egitea da, kontuan izan behar baita kirola egiteak bere arriskuak dituela. Hau kontuan izanik, kirolariaren bizitza arriskuan jar dezaketen patologia edo gai-

xotasunak detektatzeko eta zuzendu daitezkeen okerrak zuzentzeko erabiliko da aipatu zerbitzua. Honekin batera, kirolariaren errendimendua hobetzen lagunduko du, eta baita lesioen errehabilitazioan lagundu ere.

Zerbitzu hau erabili nahi izanez gero aurrez txanda eskatu beharra dago. Horretarako kiroletxera bertara

zuzendu daiteke 943 79 64 61 telefonora deituta edo eta bestela ondorengo telefono honetara: 943 77 16 77.

### Mediku azterketak

Mediku azterketen barruan hainbat mota daude: oinarrizkoa, osoa, laktatoa, dieta eta entrenamendua. Oinarrizko mediku-azterketak, kirola edo bestelako jarduera fisikoren bat (aerobic, mantentze gimnasia,...) egiten duen pertsona osasun egoera onean dagoela ziurtatzeko izango dira. Zerbitzu honek elektrokardiograma, antropometria, auskultazioa, tentsioaren kontrola... batzen ditu.

Mediku azterketa osoa, bestalde, kirola egin eta bere osasunaren berri zehatzagoa jakin nahi duenarentzat zuzendua dago.

Azkenik, dietak eta entrenamenduak ere kontrolatuko dira zerbitzu honen barruan.

### Lesioen tratamendua

Kirolaren munduan lesioak sarri gertatzen direla ikusirik, kirol medikuntza zerbitzuak lesioen tratamendua ere aurreikusi du bere programaren barruan. Tratamendu honek prebentzioa, kontsulta, tratamendua eta errehabilitazioa eskaintzen ditu. Azken zerbitzu hau eta mediku-azterketa osoak Arrasaten egingo dira. Oinarrizko mediku-azterketa, berriz, kiroletxean bertan egingo da. Dena dela, zerbitzu guztietarako aurrez txanda eskatuko da.

### KARATEKO ERAKUSKETA

Urtarrilaren 8an herriko karate eskolako neska-mutikoek kirol honetako zenbait ariketen erakusketa egin zuten kiroletxean. Erakusketa hau karatea zerden ezagutzera emateko helburuaz antolatu zen, eta bide batez, kirol hau praktikatzen duten ikasleen gurasoei beren seme-alabek zer ikasten duten ikusarazteko.

Herriko karate taldean, alde batetik, 6 eta 9 urte bitarteko 20 ikasle daude. Astean birritan entrenatzen dute hauek, martizen eta eguakotxetan eta taldea beteta dago. Beste aldetik, 10 eta 15 urte dituzten ikasleen beste talde bat dago, eta kasu honetan apuntatzeko lekua badago oraindik ere.

Odilo Vázquez entrena-tzaileak jakitera eman digunez, arte martzial honek kontzentrazioa, memoria eta imaginazioa eta karakterra lantzen laguntzen du.



## Lasai

Mirisa Mantecca

MASAJISTA

Masaje terapeutikoan  
Posturen azterketa eta  
egokitzean  
diplomatua

Lezama merkatal zentrua  
Santa Kurtz, 24 etxabea  
20550 ARETXABALETA

Tel.: 943 77 04 34

## IRIARTE

Umeen  
denda



Durana, 8 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 10 96

Bereziki: Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia

IMANOL  
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

*Hogeita zazpi urte, ez gutxiago eta ez gehiago, horiexek egin ditu gaurko gure protagonistak bere izena jarri zion jatetxean, Jose Mari bodegoian hain zuzen. Gaur egun Jose Mari Mateori jubilazioa hartzeko garaia iritsi zaio, eta egun hori noiz helduko irrikitan dago.*

## Jose Mari Mateo

### "Garai bateko bezeroek errespetu gehiago zuten"



#### ■ Zenbat urte bodegoian?

■ Hogeita zazpi pasatu dira dagoeneko bodegoia jarri nuenetik.

#### ■ Luze joan dira?

■ Pentsatu ez arren, urte asko dira.

#### ■ Nola jarri zenuen taberna?

Lehendik ere herriko hainbat tabernetan lanean aritua nintzen, Taberna Berri, Eguzki... baita herriko jaietan ere. Beraz, esperientzia banuen tabernari lanetan.

#### ■ Eta orain zer, jubilazioari begira?

■ Bai, jubilatzeko irrikitan nago. Taberna eta jatetxearen ardura hartuko duen norbaiten zain nago.

#### ■ Eta zer egingo duzu jubilatutakoan?

■ Ahalik eta ondoen bizi.

#### ■ Zer botako duzu faltan tabernako lana utzi eta gero?

■ Ezer ez, hemen inguruan ibiliko naiz gero ere.

#### ■ Zer eman dizu tabernak urte luze hauetan?

■ Lana, dirua, burukominak... ordu asko sartu behar dira.

#### ■ Lan lotua tabernakoa. Eta zuk zein filosofia duzu, lan egiteko bizi ala bizitzeko lan egin?

■ Lehen agian lan egiteko bizi ginen, orain nik ere ikasi dut, bizitzeko lan egin behar dela.

#### ■ Tabernan zein aldaketa nabaritu duzu ordutik hona?

■ Lehengo bezeroak heziketa hobea zuen.

#### ■ Zer da goizean jaiki eta egiten duzun lehenengo gauza?

■ Garbitu eta gero emazteari lagundu lapikoak ipintzen.

#### ■ Nongoa zaitugu?

■ Arabar Errioxakoa. 1956.ean etorri nintzen hona.

#### ■ Lanera?

■ Bai, leku desberdinetan lanean aritu nintzen, Zubia, Beroa, zerrajeran, Eskoriatzan.. Azkenean neure negozio propioa, hau da taberna, jarri nuen arte.

#### ■ Zein desberdintasun dago zure jaioterriko eta hemengo bizitzaren artean?

■ Han bizitza lasaia da.

#### ■ Non ezagutu zenuen emaztea?

■ Hemen Aretxabaletan.

#### ■ Eta zenbat urte ezkondu zinela?

■ 36 urte.

#### ■ Iloba bat ere baduzu.

■ Bai, sei urteko iloba daukat. Permisua eskatu barik egin ninduten aitona.

#### ■ Eguna alaitzen dizu...

■ Lana ondo egiteak.

#### ■ Eta bukatzeko, eguneko momenturik onena?

■ Siesta garaia.

FOTO

**Urkiola**

ARGAZKIAK

Herriko plaza, 5-behea  
Tel.: 943 79 39 20  
ARETXABALETA

Bataioak  
Jaunartzeak  
Ezkontzak

Albunak  
Argazki kamarak  
Markoak...

ARBULO  
HARATEGIA

Santa Kurtz, 5  
Tel.: 943 79 02 24  
ARETXABALETA

Jose Mari  
bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6  
☎ 943 79 20 45  
ARETXABALETA

# ARRITZEKO, S.L.

## Hurrengo etxebizitzak Durana kalean



**27 etxebizitza, lokalak eta garajeak**  
**Santa Kurtz kalean • ARETXABALETA**

Fueros, 26 - 5º Of. 1 • Tfnoa-Fax: **945 230408** • VITORIA-GASTEIZ

*horma armairuak*



**tolesgarriak**

**horma armairu  
irristagarriak**



**AZKARATE**  
**AROSZTEGIA**

ARETXABALETA 943 77 01 24  
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,  
horma armairuak, tarimak  
eta parketak*

**ARDATZA**  
*Brikolaketa*

Masterreka, 4 behe. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA

# TABERNA eta JATETXEEN GIDA


## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA  
Tl.: 943 79 85 57

## Express akeitegia



Santa Kurtz, 16  
☎ 943 79 23 43 zure gustoko giroa

## Gurea taberna

Jatetxea eta  
taberna  
**GUREA**

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## Dorleta taberna

**Dorleta**

*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi 8 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 94 15

## Arlutz taberna



*Gustoko musika*


Mitarte, 16  
Tl.: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

## Goyaran erretegia



**GOYARAN ERRETEGIA**

*• Panika espezialitatea*

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 943 79 68 57

## Mendiola erretegia



*Bazkariak  
eta afariak*

*Astelehenetan  
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Bazter alde jatetxea



**Sasoiko  
jakiak  
giro  
onenean**

Galartza auzoa  
☎ 943 79 24 58  
ARETXABALETA

## Amets taberna



**Taberna eta kafetegia**

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29  
Aretxabaleta

## Basabe jatetxea

**Menu eta afariak**



Basabe poligonoa • 943 79 91 84

## Josu harategia

*Josu  
harategia*

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1  
Tl.: 943 77 03 08



## Taberna Berri

**Taberna Berri  
jatetxea**



Durana, 26 • ARETXABALETA  
☎ 943 79 20 67

## Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETA



## Diru hotsa eta etxafleroak

Nonbaitetik hasi behar eta asteko berriarekin hasiko naiz neu ere, **ONCEk** herriari utzi dituen 50 milioiekin hain zuzen. Ah ze zortea! Izen batzuk ere esan dizkirate baina ez dela zuzena kaleratzea eta ezingo dizkizuet zuei kontatu. Nori ez zaion tokatu behintzat esan ahal izango dut, Ion harakinari. Berak banatu zenbakiak eta bera gabe geratu. Badakizu Ion, diru kontuan pobre, amodio kontuan aberats...

**Gazte Asanbladako** kideak ere ez daude geldirik. Gaztetxea eraberritzeko erronka euren gain hartu zuten eta hortan dabilta. Aste bukaeran Garaiora egin behar omen dugu irteera. Bai, bai, neu ere banoa nolako gaztetxea nahi dudan esatera, geuk, herriko gazteok egiten ez badugu nork egingo du ba? Mugi gaitezen behingoz!

Kiroletara pasatuz, bestalde, berri ugari ditut. Hasteko **Imanol Galfar-soro** aipatu behar. Imanol ez da kirolaria baina Euskadiko selekzioa eta Londreseko futbol taldeen arteko partidu bat jokatzen azaldu zen orain egun batzuk "La Peña"koen programan ETB-2an. Imanol,

aspaldi joan bazen ere Londresera bizitzera batekin baino gehiagok ezagutu zuen telebistan atera orduko. Zapatu honetan, berriz, **Gorka Madinabeitia** eta **Edorta Antxiak** Bailara mailako saria jasoko dute Oñatin. Zer egin ote dute bada saria jasoteko? Bailara mailako pala txapelketan 2. gelditu, ez da gutxi gero. Zorionak bikote!

Gure herriko ironman-a, **Josu Izagirre**, triatloi zuria deitzen den Espainiako txapelketara joango da. Kantabriako Reinosa eta Alto Campo artean ibili beharko da eta 10 Km. korrika, 30 Km. bizikletaz eta beste 10 Km. iraupen eskiz egin beharko ditu. Pentsatuta bakarrik, nekatu egiten naiz. Martxoa aldera, berriz, munduko txapelketara joateko asmoa omen du. Ez al da inoiz nekatzen mutil hau?

Makina bat etxaflero entzun beharko ditugu aurretik ere, **Santa Ageda mutilek** inoiz baino domeka gehiago baitute parrandan egiteko. Ez bakarrik parrandan baita dantzan ere beraz, ez dut esperantza galduko eta egunen batean niri ere txokolatea hartzen joatea tokatuko zaidala pentsatuko dut.

*M. J. Antxiak*



## Gerturik daukagu odola

Joxean Sagastizabal  
Pamiela, 1999  
(Tamaina ttikia; 36)

Euskal Herri osoa euskalduntzeko metodo berri bat aurkitu du Sagastizabalek bere azken liburu honetan. Euskal odola erabiliz euskalduntzeko metodoa hain zuzen. Liburuaren protagonista, euskaltegian urtetan ibili eta gero ez da gauza euskaraz mintzatzeko, baina halako batean aurkitu du euskalduntzeko metodoa eta ikasi gabe gainera.

Sagastizabalen umorea nahiko ezaguna da jadanik, "Kutsidazu bidea Ixabel" liburua irakurri dutenen artean. Liburu hau ere antzekoa da, umorez bete eta erritmo bizi bizi duena, eserialdi batetan irakurtzeko modukoa.

14 urtetik aurrera irakurtzeko moduko liburua duzue, irakurtzea gustatzen ez zaionak ere gustora irakurriko duena.

*Joseba Lopez de Armentia*

## DISKAK



■ Gure artean, eta hemendik kanpo ere, sekulako oihartzuna izan zuen talde honek. Hertzainak, Gasteizen lekututako talde txiki bitxi bat izan zen. Hego Euskal Herriko eskualde guztietako partaideak zituen, nafar, bizkaitar, gipuzkoar, eta jakina, arabarrak ere bai. Lehen disko honek, ordurako izen handia zuen Ruper Ordorika zuen aitaponteko. Hertzainak taldearen lehen disko hau, laurogeigarren hamarkadako diskorik interesgarrienetarikoa bat da gure artean. Besteak beste disko honetan sartu zituzten, "Eh Txo!", "Ta Zer Ez Da Berdin", edota "Pakean Utzi Arte". Urteek aurrera egin zuten bezala, Hertzainek ere aldatzen jakin zuten, eta beste aire batzuk arnasteko gai izan ziren.



■ Hamarkada indartsu hasi zuen Ondarruko talde honek. "Tu-k" izan zuten beren lehen izena. Piztiak-i, heldu eta bide berrietatik abiatzea erabaki zuten. Norabide-aldaketak ordea, ez zuen esperotako harrera izan eta urte batzuk geldirik ez baina aurrera asko egin gabe eman dituzte. Disketxe-aldaketak ekarri die arnasa berria. Piztiak goraka doa. Orainarte egin duten lanik onena da Zeroa izeneko hau. Oso ona. Gainera, teknologia berriak aprobetxatuz, diskoko azken kortea, lehengo kantu bideo-klipa da.

## Denetik

Nintendo 64 salgai. Honez gain, mandoa eta hiruru joku ditu: Super Mario 64, Goldeneye eta V-Rally 99. Prezioa 18.000 pzta.  
Tel.: 943 79 88 53, Mikel.

Boxer arrazako txakurkumea salgai. Pedigriarekin.  
Tel.: 696 057 346.

"Spaniel breton" arrazako 3 hilabeteko 2 txakur salgai.  
Tel.: 943 79 19 63.

Aretxabaletako kale batean boligrafo dotorea topatu da.  
Tel: 943 79 73 84, gaueko 8etatik aurrera deitu.

Rossignol markako snowboard tabla salgai, fijazio eta guzti. 1,34 neurrikoa, 10-15 urte bitarteko gaztearentzat.  
Tel.: 616 286 842, gaueko 8retatik aurrera deitu.

Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta.  
Tel.: 943 71 49 15, gaueko 9retatik aurrera.

Txakurra eramateko erremolke berri berria salgai. Deitu 943 77 05 75 telefonora.

Kanpindenda kanadiensea eta kotxe gainean

## Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

eramateko PVCzko kaxa salgai.  
Tel.: 943 79 23 69.

Urrezko zintzilikarioa galdu da. Inork aurkituko balu 943 77 17 42 telefonora deitu.

Kawasaki GPC 400 salgai, egoera onean.  
Tel.: 943 73 18 72 edo 73 12 82.

## Etxebizitza

Prentsa saltzen duen denda alokagai edo salgai Aretxabaletan.  
Tel.: 943 77 19 20.

Garaje ederra alokagai Otalora kalean.  
Tel.: 943 79 47 62.

Begarako erdigunean etxea salgai.  
Tel.: 943 76 54 24, gauez deitu.

Aretxabaleta edo Arrasaten langile batek gela bat behar du bizitzeko.  
Tel.: 607 798 723.

57 m<sup>2</sup>ko garajea salgai Errekabarren kalean.  
Tel.: 943 79 74 73.

Etxea erosi nahi da Aretxabaletan.  
Tel.: 943 79 61 68.

Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan.  
Tel. 649 16 86 69.

Garaje bat erosi nahi genuke Eskoriatzan, Olaeta edo Aingeru Ibiltokia kale inguruetan.  
Tel.: 943 79 75 80/715266.

Jose Mari Bodegoia saltzen edo alokatzen da.  
Tel.: 943 79 20 45.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
*Lyonel Arquero*

Dekorazioa:  
*Soraya Arquero*

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

Herriko plaza, 8 behea  
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

## Lana

Estetizista behar da.  
Tel.: 943 79 94 39.

Gaztea behar da tabernan  
orduka lan egiteko.  
Ikasleentzat lan egokia.  
Tel.: 656 721 482.

2. LOGSEko zientzietako  
ikasle batek kimika eta  
historiako klase partikula-  
rrak hartuko lituzke.  
Tel.: 666 725 332.

Etxea garbitzeko edo  
pertsone nagusi zaintze-  
ko prest emakumea. Tel.  
943 79 62 69.

Ingeleseko klase partikula-  
rrak ematen dira. Maila  
guztiak.  
Tel.: 943 77 08 69.

Catalana Occidente asegu-  
ru etxeak agente komertzialak behar ditu.

Interesatuok ondorengo  
telefono zenbakietara  
zuzendu zaitezke.  
943 429212/670431395/  
900180228

## Lan deialdi publikoak

Tolosako Udalak udaltzai-  
na behar du.

Aurkezteko epea: BOEn  
argitaratzeko zain.

Oinarriak: GAO 99/12/28

Durangoko Udalak igeri-  
ketako monitore soroslea  
behar du.

Aurkezteko epea: BOEn  
argitaratu eta hurrengo  
20 laneguneko epean.


Oinarriak: BAO 99/12/27

Fiteroko Udalak adminis-  
trari laguntzailea behar  
du.

Aurkezteko epea: 00/02/02  
Oinarriak: NAO 00/01/03

Zizur Nagusiko musika  
eskolak bonbardino ira-  
kaslea behar du.

Aurkezteko epea: 00/02/02  
Oinarriak: NAO 00/01/03



# Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Deba Garaian kokatuta dagoen enpresak soldadura irakaslea behar du.

Erref: 27382/5

Durangaldean kokatutako enpresak mantenimenduko ofiziala behar du.

Erref: 27589/5

Arabako lautadan kokatutako enpresak kalitate kontrolerako teknikaria behar du.

Erref: 27631/2-27632/3

Elorrion kokatutako enpresak CNC tornularia behar du.

Erref: 27798/3

Durangaldean kokatutako enpresak injineru teknikoak behar du.

Erref: 27900/3

Egailan S.A.k behatokiko teknikoak behar du. Soziologian edo Ekonomiketan lizentziatua.


Erref: 28104/5

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15

☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

ARETXABALETAKO

ITURGINTZAKO

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETAKO

MAITE

ileapaindegia

Sarasate, 1 ☎ 943 79 59 05  
ARETXABALETAKO

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

*Etxabe  
harategia*

Durana 4  
☎ 943 79 16 61



FELIX  
PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 beheak  
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta  
txarkuterian  
espezialitatea

*Angelines*  
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

**URTARRILA****27 EGUENA**

■ **ODOL EMATEA** Arabako odol bankukoek odola emateko kanpaina egingo dute. Osasun zentruan arratsaldeko 4retatik 8etara izango da odol ematea.

**28 EGUAKOTXA**

■ **BATERAK ANTOLATUTAKO KONTZENTRATZIOA** Hamabostero bezala eguakotx honetan ere, baterak antolatu eta plataformak lagunduta, euskal presoak Euskal Herrira lemaz, kontzentrazioa egingo da arratsaldeko 7etan udaletxe parean.

**29 ZAPATUA**

■ **GAZTETXEKO IRTEERRA** Gazte Asanbladak Garaioa irteera antolatu du, gaztetxearen etorkizuna erabakitzeko. Goizeko 9,30etan gaztetxetik aterako dira eta 1.000 pta. izango da gosalduta, bazkaldu, afaldu eta lo egitea.

**OTSAILA****3 EGUENA**

■ **SAN BLAS EGUNA** Urtero legez San Blas eguna ospatuko da Apotza-Etxabarriko Sailuenteko ermittan.

■ **MITOLOGIAREN INGURUKO HITZALDIA**

Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta, Euskal Herriko mitologiaren inguruko hitzaldia izango da. Oñati eta inguruko mitologia aztertuko da arratsaldeko 7etan udaletxe zaharrean.

■ **BASERRIAREN TRANSMISIOAREN INGURUKO HITZALDIA**

Gipuzkoako baserriak transmititzeko lege berria dago indarrean urte berrietik. Hori azaltzeko Pili Zubiarrain abokatuak hitzaldia emango du Bergarako OCAn arratsaldeko 3,30etan.

**4 EGUAKOTXA**

■ **SANTA AGEDA BEZPERA** Santa Ageda mutilak baserri-baserri joango dira kantuan eta borondate eskean.

**5 ZAPATUA**

■ **SANTA AGEDA EGUNA** Santa Ageda mutilak herriko kaleetan ibiliko dira abestu eta borondate eskean. Arratsaldean, berriz, dantza saioa eskeiniko dute herriko plazan.

**7 ASTELEHENA**

■ **ODOL EMATEA OSASUN ZENTRUAN**

**14 ASTELEHENA**

■ **ODOL EMATEA OSASUN ZENTRUAN**

**LEHIAKETAK**

■ **MARTXOAK 8KO ARRASATEKO IV. KARTEL LEHIAKETA**

Arrasateko Udaleko emakume sailak, "emakume! Hartu hitza eta erabakia" lema izango duen martxoak 8ko kartel lehiaketa antolatu du. Teknika librea izango da eta derrigorrez aipatutako lema izan beharko dute lanek. Irabazleak 70.000 pztako (-PFEZ %) saria jasoko du. Kartelak 2000. urteko otsailaren 18a baino lehen Arrasateko udaletxe-ara bidali beharko dira.

**UDAKO LAN LEKUA**

■ **JOSÉ MARTÍ LAN BRIGADA KUBAN**

Euskadi-Kuba "José Martí" elkarteak, uztailearen 10etik 30era bitartean lan brigada antolatu du Kuban. Lan lekua, Habanatik 40 Km. ra dagoen fruitu sail batean izango da. Bakarrik edo taldeka joan ahal izango da bertara eta aukeraketa egiteko orduan, izena emandako data hartuko da kontuan. Informazio gehiago nahi izanez gero: Asociación Euskadi-Cuba "José Martí" 163 posta kutxa Barakaldo (Bizkaia) Tel.: 94 438 74 29

# BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe



Zorionak



**Luis Beltran de Heredia**  
Urtarrilak 20  
Zorionik be-  
roenak familia-  
koen partetik



**Julita Gonzalez**  
Urtarrilak 29  
Zorionik be-  
roenak fami-  
liakoen parte-  
tik



**Puri Altube**  
Otsailak 2  
Etxekoan par-  
tez, zorionak!



**Ane Lore Estala**  
Otsailak 2,  
Zorionak eta  
urte askotara-  
ko



**Puri Beltran de Heredia**  
Otsailak 4  
Zure lankide-  
en partez  
egun zorion-  
tsua pasatu

Txistuak • Txaloak

Gure kaleetan moda berria dago, kotxea zebrabide edo espaloï gainean uztea hain zuzen. Ez dakit ume kotxe bat erabiltzeko autoeskolatik pasa behar den, baina 1. mailako karneta merezi dute egunero-egunero espaloietan dauden kotxeen artetik pasatuz, pasiatzen duten ama horiek. Eroski parean, Errekabarren eta Loramendi kaleetan edo trenbidean, udaltzainak gora eta behera ibili arren, ez dizkiete isunik jarten edo jarrita ere, badirudi ez diela min haundirik ematen gidari arduragabe hauei. Asfaltoko artista hauei guztiei, **txistu** haundi bat eta eskari bat, oinezkoak errespetatzea, guk ere geure eskubideak baititugu.



Atxabalta telebista

20:00

20:30

21:00

martizena

ALBISTEAK  
Agenda  
Argazki-zaharrak  
Kirolak

Albiste errepikapena

Albiste errepikapena

egukotxa

ALBISTEAK  
Agenda  
Eguraldia

Atxabalta ezagutzen

Albiste errepikapena

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
  - Aretxagazeta 943 79 86 21
  - Telebista 943 79 86 21
  - Basotxo 943 77 09 81
  - Euskaltegia 943 79 21 68
  - Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
  - Hezibide Elkartea 934 79 31 32
  - Industrialdea 943 79 62 80
  - Institutua 943 79 79 00
  - Kiroletxea 943 79 64 61
  - Kultur-Etxea 943 79 01 05
  - Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
  - Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
  - Liburutegia 943 79 10 00
  - Loramendi E.E. 943 77 09 70
  - Ludoteka 943 79 05 81
  - Mankomunitatea 943 79 30 90
  - Murruxiko M.E. 943 79 93 74
  - Musika Eskola 943 79 36 50
  - Ortzadar 943 79 01 84
  - Osasun zentroa 943 79 74 58
  - Otalora 943 71 24 06
  - Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
  - Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
  - Postetxea 943 79 28 31
  - Santa Rita Ikastetxe 943 79 17 00
  - Saretxo 943 71 26 56
  - Taxi Geltokia 943 79 22 33
  - Udal Bulegoak 943 79 10 00
  - Udaltzaingoa 943 79 10 52
  - Urats Gain 943 79 99 11
- Udaltzaingoa**
- Arrasate 943 79 14 39
  - Bergara 943 77 91 06
  - Eskoriatza 943 71 44 07
  - Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15



## Atxabaltako popularrenak

**A**

urreko alean taldekide batzuk bakarrik atera genituen baina denek merezi dute ateratzea eta hona hemen Atxabaltako kuadrilarik popularrena. Ez zegoen kuadrila hau bezalakorik herria girotzeko orduan, kantuan, dantzan... zer ez zuten egi-

ten!

Argazki hau ere Etxabeneko fondan ateratakoa da orain 57 bat urte.

Ezkerretik eskumara: **Andres Jauregi, Lorenzo Peña, Alejandro Arcauz, Eusebio Arrese, Jesus Errasti, Santiago Lonbide, Mariano Ote-**

**ro, Jesus Alberdi, Angel Gabilondo, Jose Arenaza, Ricardo Galdos, Felix Azkarretazabal, Faustino Larrinaga.**

*Argazkia eta informazioa:  
Santiago Lonbide*



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe Industrialdea C Pab. / 25 postakutxatila  
ARETXABALETA Tel: 943 71 21 12/943 71 22 68



**Pintxoetan  
espezialitatea**

*Zatozi*

Lausitta, 4  
943 79 29 36  
(Lehenago Juliantxo)

**Lausitta** taberna



**"KURTZEBARRI eskola  
garai berrietan ere... garaiiz"**

**Haur Hezkuntza: 2tik 6ra (2 urtekoak goiz eta arratsaldez)**

**Lehen Hezkuntza: 6tik 12ra**

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 12tik 16ra**

**ZATOZI!**

**gure  
eskola eta  
Hezkuntza  
Proiektua  
ezagutzera**

**MATRIKULA**

**EPEA IREKITA:**

**otsailaren**

**7tik 18ra**



**KURTZEBARRI  
ESKOLA**

Edozein argibide eskatzeko 943 79 00 49 - 943 79 57 40

# Ford Gama 2000



 **MUGARRI**

DEBA GARAIKO  
KONTZESIONARIO OFIZIALA

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

